



KONTAKIZUNEN LEHIAKETA

Kontaiezaguzu liburu baten protagonista izatea mereziko lukeen emakume baten istorioa

Eguesibarko Udalak, Genero Berdintasunaren Arloaren bidez, 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilendako lehiaketa hau abiarazi du.

Lehiaketaren helburua da irudimena, sormena eta behaketa bultzatzea, inguruan ditugun aparteko eta ezinbesteko emakumeen historia bat sortzeko, gure eguneroko bizitzan aurkitzen ditugun horiena. Liburu baten protagonista izatea merezi duen emakume baten istorioa izanen da.

Asmoa da lehiaketaren bidez honako hauek bultzatzea: eguneroko bizitzako edozein esparrutan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunarekin lotutako balioetan oinarritzen den berdintasunezko kultura, estereotipo sexistak haustea eta gure inguruko emakumeen ikusgarritasuna sustatzea.

Lehiaketa honek Eguesibarko Genero Berdintasunerako II. Plana du oinarri.

Lehiaketa hiru kategoriatan banatuko da adinaren arabera:

- A. A kategoria: 8 urtera arteko haurrak
- B. B kategoria: 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutilak
- C. C kategoria: 10 eta 13 urte bitarteko neska-mutilak

Lehiaketan parte hartzea doakoa da. Eguesibarko 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izanen dute.

Lehiaketa 2022ko martxoaren 8tik apirilaren 20ra egonen da indarrean, biak barne.

BALDINTZAK:

- 1.- Aurkezten diren kontakizunek originalak eta argitaragabeak izan beharko dute.
- 2.- Norberak aukeratzen duen hizkuntzan idatzita egonen dira, Word formatuan edo eskuz idatzitakoak. Gutxieneko luzera A4 folio baten aurpegi batekoa izanen da, eta gehienekoa 4 aurpegikoa.
- 3.- Parte-hartzaile bakoitzak kontakizun bakarra aurkeztu beharko du.
- 4.- Kontakizunak e-postaz bidaliko dira, igualdadberdintasuna@egues.es helbidera.
 1. Posta elektronikoaren GAIAN aurkeztutako kontakizunaren izenburua jarriko da, eta, jarraian, "kontakizunen lehiaketa" hitza.
 2. ERANTSITAKO BI FITXATEGI bidaliko dira: bat "kontakizuna" izenarekin (egindako kontakizunaren edukiarekin) eta beste bat "datuak" izenarekin, honako datu pertsonal hauekin: izen-abizenak, adina, zein kategoriatara aurkezten den, helbidea, telefonoa eta/edo harremanetarako posta elektronikoa.



Ipuin irabazleak aukeratzeko irizpideak:

- Hizkuntza ez-sexista eta berdintasunezkoa erabiltzea
- Kontakizunak edo istorioak aukera-berdintasunaren oinarriei buruz sensibilizatzeko aukera ematen ote duen.
- Originaltasuna
- Idazkera
- Ortografia

Lehiaketara aurkeztutako kontakizunen artean irabazleak ebatziko dituen epai-mahia Berdintasun, Kultur eta Haurtzaroko Udal-zerbitzuetako teknikariez osatuko da.

- A kategoria: genero berdintasunari buruzko 3 liburu
- B kategoria: genero berdintasunari buruzko 3 liburu
- C kategoria: genero berdintasunari buruzko 3 liburu

Irabaziko duten parte-hartzaileen izena maiatzean jakinaraziko da Klik Eguesibar sare sozialen bidez, eta interesdunei jakinaraziko zaie eman duten e-postaren bidez.

Aurkeztutako kontakizunak Eguesibarko Udalaren jabetzakoak izanen dira aurrerantzean, eta irabazi-asmorik gabe, saritutako kontakizunak ondoren hezkuntza- eta sensibilizazio-helburuetarako erabiltzeko eskubidea izanen du Udalak (betiere idazlea nor den jarrita).

Onarpena

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta epaimahaiak erabakitzen duena onartzea dakar.